



- 



LAUTADAN, EUSKARA ELKARLANEAN

Zure bizimoduarekin bat egiten dugu



Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

Zurekin bat

www.fundacionvital.eus



2020-02-05

AZALEKO IRUDIA:
ALEA

Bultzatzailea



HARREMANETARAKO DATUAK

LAUTADAKO EUSKARAREN KOMUNITATEA
Zapatari 31, 01200 Agurain (Araba)
lautadan.euskaraz@gmail.com
605 29 09 51

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 7.000 ale

Banaketa

Tarteka Media

Lautadako Euskararen Komunitatea

'Lautadako ALEA' aldizkaria Lautadako Euskararen Komunitateak eta Arabako ALEAk elkarlanean garatutako proiektua da.

Laguntzaile pribatuak



Aurkibidea

- 4 **Lautadako euskararen komunitatea.**
- 10 **Elkarrietzeta.** Ainhoa Arbaiza eta Noemi Garcia de Iturrospe.
- 12 **Lautada.** ADR.
- 14 **Lautada.** AHTa eta Iturrietako parke eolikoa.
- 16 **Agurain.**
- 18 **Dulantzi.**
- 20 **Asparrena.**
- 22 **Barrundia.**
- 24 **Burgelu.**
- 26 **Iruraiz-Gauna.**
- 28 **Donemiliaga.**
- 30 **Zalduondo.**
- 32 **Euskalgintza.** AEK eta ALEA.
- 34 **Agenda.**

Laguntzaile publikoak





Lautadako Euskararen Komunitatearen bigarren asanblada egin zuten iazko azaroaren 28an, Dulantzin.

Hizkuntza ohiturak aldatzea helburu

Lautadako Euskararen Komunitatea, 2017. urteko udazkenean abian jarritakoa, eskualdeko izaera ezberdinetako entitateak eta taldeak artikulatzeko asmoarekin jaio zen. Taldeak erdigunean jarrita, eskualdeko hizkuntza ohiturak aldatzea du xede.

Testua: **Mirian Biteri**. Argazkiak: **Lautadako Euskararen Komunitatea**.

Lautadan izan diren norbanako euskaltzalez osatutako ohiko elkarte antolaketatik "beste zerbaiteira bide bat" egiten ari dira 2016. urtetik. Taldea jarri dute erdigunean, hizkuntza ohiturak ulertzeko eta aldatzeko sistema eraldatzailerik bezala: hain justu ere, herriak, kolektiboak, establezimenduak eta lantegiak bezalako entitate egituratuak, batetik; eta bikoteak, familiak edo lagun-kuadrillak, bestetik. Horiek guztiak artikulatzea du helburu nagusi Lautadako Euskararen Komunitateak, hizkuntzaren erabilerako baldintza sozial aproposak sortzeko.

Lautadak 13.000 biztanle inguru ditu. XVIII. mende amaierara arte euskararen erabilera zabala bazen ere, XX. mendearen hasieran guztiz desagertu zen. 1970. urtean, herriaren ekimenez, euskararen berreskuratze lanak abiatu zituzten: Agurainen ikastola eta euskaltegia martxan ipini zuten, adibidez. 2009an, eskualdeko Euskara zerbitzua abian jarri bazen ere, hurrengo urteetan, biztanleen %45ak oraindik ere ez zuen euskara ulertzen, eta erabilera datuak ere baxuak izaten jarraitzen zuten: herritarren %5ak baino ez zuen erabiltzen.

Hala, euskaingintzan autokritika egin zuten, ordura arte egindako egitasmoek ez zutelako aurrerapausu nabarmenik ekartzen. Egoerari buelta eman nahian, Donostiako Egia auzoan egindako ariketa bat erreferentzia hartuta, Agurainera egokitzea erabaki zuten 2016ko hasieran. Azarorako *Agurainen 75 Ordu Euskaraz* ariketa kolektiboa antolatzea erabaki zuten. Arrakasta erabatekoa izan zen. Aguraingo 284 lagunek konpromisoa hartu zuten lau egunetan gaztelania ez hitz egiteko, eta, era berean, 134 entitatek neurriak hartu zituzten euskarari bidea emateko.

2017ko urria

2017an, indarberrituta, ariketa errepikatzeko gogoz, lantalde bat izan zen lanean hurrengo aktibazio ariketa prestatzen. Lautadako 63 herriak kohesionatzeko 12 bilera egin zituzten uda partean eta proposamen zehatza ere bota zuten: 2018an, *11 Egun Euskaraz*



HANDITAN pentsatu,
TXIKIARI erosi

BAI euskarari, BAI Lautadako establezimenduei

LAUTADA Bizirik ACICSA

Lautada Bizirik ACICSA-ko merkataritza, ostalaritza eta gainerako zerbitzuak euskararen alde



2018ko apirilaren amaieran osatu zen Lautadako Hamaikakoa.

2016TIK EUSKARA SUSTATZEKO ARIKETA SOZIAL EZBERDINAK ANTOLATU DITUZTE

RAMBLA
KONPONKETAK

SAN MARTIN 6
TEL: 945 31 20 23
AGURAIN

(Euskaraldia) antolatzea, eskualde mailan. Batzarretan jasotako interesa ikusita, hizkuntza ohiturak aldatzea helburu zuen Lautadako Euskararen Komunitatea 2017ko urriaren 19an elkartu zen lehendabiziko aldiz: 38 herrien parte-hartzearekin eta 20 kolektiborekin: guztira, 107 lagun.

Bertan, ondorengo erabakiak hartu zituzten, besteak beste: 2018an, Ahobizi eta Belarriprest metodologia sustatzeko kolektiboak, establezimenduak, enpresak eta herriak komunitate horren partaide izango ziren eta 11 Egun Euskaraz ekimena modu koordinatuan antolatuko zuten, eskualdeko zortzi udalekin, kontzejuekin eta kuadrillarekin elkarlanean. Horretarako, liberatu batek eta 100 boluntario inguruk osatutako sare bat eratu zuten.

Euskaraldian, 1582 lagun

2018an Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egin bazen ere, urte osoan zehar aritu ziren lanean eskualdean. Hamaikakoak eratzearekin batera, Ahobizi eta Belarriprest rolak aukeratzeak zer suposatzen zuen azaltzeko tailer asko egin zituzten herri askotan, hala nola, Burgun, Agurainen, Dulantzin, Gereñun, Narbaxan, Eturan edo Etxebarri-Urtupiñan. Mahaiak ere kalera atera zituzten, Euskaraldiari buruzko xehetasunak hurbiletik azaltzeko; eta hori guztia osatuz, egoitza bat ere inauguratu zuten, Agurainen.

Denera, 1582 lagunek eman zuten izena: 828 Ahobizi eta 754 Belarriprest izan ziren Lautadan. Kuadrilla bera, zortzi udal, 51



Lautadako Kuadrillak, zortzi Udalek eta 51 Batzar Administratibok hartu zuten konpromisoa Euskaraldia sustatzeko.

ORBELATAN

BASO ESKOLA

3 URTETIK AURRERA

ATE IREKIAK BASOAN

Otsailak 22, 11:00etan Ozaetan

IZEN EMATEA ETA INFO +
idazkaria.orbelatan@gmail.com





2019an egindako Simulakroan kartelak jarri ziren herrietako kaleetan.

batzar administratibo eta 155 entitate pribatu izen-emate arrakastatsu horren parte ere izan ziren.

Euskal Herri mailan 2019/2020rako egindako proposamenaren ondorioz, komunitatearen egitura mantentzea erabaki zuten Euskaraldia amaitu ostean, baita beharrezkoa den instituzioekin elkarlanean jarraitzea ere.

Beste inork baino lehen, 2020rako aurreikusitako ariketa sozialak izango duen ezaugarriekin (ariguneak, entitateak) zazpi eguneko Simulakroa antolatu zuten 2019ko urriaren 21tik 27ra. Zazpi egun horietan, Ahobizi eta Belarripresten hizkuntza-jokaerak praktikara eramateko aukera izan zuten berriro ere; elkarrizketa elebidunak normal bihurtzea; ezezagunei euskaraz defektuz egitea, jakingo duen ala ez pentsatu gabe; eta euskaldunak eta erdaldunak dauden taldeetan normala izatea euskaraz egitea ulertzen dutenen artean.

Horrez gain, Lautadan herritarrei edo bezeroei zerbitzu bat ematen dieten 135 entitatetan egin zuten bisita; erakunde horietan konpromisoa hartu zuten bezeroei arreta emango zien Belarriprest edo Ahobizi bat egongo zela uneoro. Arigune hauetan erraztasun praktikoak ematen zizkieten Belarriprest edo Ahobizi zenari; hain zuzen ere, hori baita Euskaraldiaren helburuetariko bat.

Simulakroa ez zen ekimen bakarra izan. Azaroaren 28an bigarren bilkura orokorra egin zuten; Dulantzín izandako batzarrean 36 entitatetako arduradunak eta 38 herritako ordezkariak bildu ziren. 111 lagun. Orain artekoa aztertzearekin batera, datozen bi urtetarako lan ildoak onartu zituzten. ■■■

Bergara Centro Óptico

Aguraingo audilogia zentroa · Centro audiológico de Agurain

Optometría Audiología



AURRETIKO HITZORDUA
GITA PREVIA

945 302 978
640 126 604

Martin Deuna kalea 6
01200 AGURAIN

GARAION NATURARTEA

Otaza auzoan gaude
Ozaetan

garaion
naturArtea

Ongi Etorri:

Sortzera, **Naturan goatzera**, Ondarea berpiztera.

JOLASTU ETA GOZATU



ESKOLA



Lanbide zaharrak
aukera berriak...



Zumea eta bioeraikuntza

IKUSKIZUNAK



Sortu eta ikusi



Lautadan Euskaraz bizi nahi dugu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



"Hizkuntza politika adosteko, mahai bat sortzea dugu helburu"

AINHOA ARBAIZA ETA NOEMI GARCIA DE ITURROSPE EUSKARAREN KOMUNITATEKO KIDEAK

Azaroaren amaieran Lautadako Euskararen Komunitateak Dulantzín egin zuen bigarren batzar orokorraren eta komunitatearen ibilbidearen balorazioa azaltzearekin batera, datozen bi urteotarako erronkak azaldu dituzte Arbaizak eta Garcia de Iturrospek. Testua eta argazkiak: **Mirian Biteri**.

Euskararen ezagutza eta erabilerari dagokionez, errealitate oso ezberdinak dituzten herrietakoak dira Ainhua Arbaiza eta Noemi Garcia de Iturrospe; lehenengoa aguraindarra da; eta bigarrena, berriz, burguarra. Baina biek bat egiten dute Lautada mailan sare bat osatzearen garrantzia azpimarratzean, eta egoerak bateratzearen eta herri guztietan gutxieneko batzuk bermatzearen beharra nabarmendu dute. **Zer nolako balorazioa egiten duzue Dulantzin egindako batzarraz?**

Ainhua Arbaiza: Partaidetzatik hasita, oso positiboa, irudia ederra zen. Argazki bat guretzat oso garrantzitsua da, horren bila gindoazen, eta lortu genuen. Kontuan hartu behar da gu ez garela Noemi eta Ainhua bakarrik, irudian agertzen diren guztiak gara. Horrekin batera, ekainean martxan jarritako hausnarketaz jardun genuen eta datozen urteotarako erronkak ere bota genituen. Balorazioa, hortaz, oso positiboa da.

Noemi Garcia de Iturrospe: Batetik, azken bi urteotan egindako lanak azaldu genituen; agerian geratu zen lehengo asanbladatik gaur arte aurrera jarraitu dugula. Bestetik, bat nator Ainhoarekin: argazkiak erakusten du berme bat dugula.

Lautada mailan saretzea lortu duzue. Hori al da lorpen garrantzitsuena?

A. A.: Bai. 2017. urteko uda horretan herriz herri hasitako bileretan sustraitu zen hau guztia: herrien arteko harremanak, bata besteari aurpegia jartzea... Urriaren 19an sortutako Lautadako Euskararen Komunitatea ere funtsezkoa izan zen. Lautadan geografiak ez du gehiegi laguntzen, punta batetik bestera kilometroak daude eta herriak oso desberdinak dira. Horregatik sarea oinarritzkoa da.

Lorpenez gain, beharren gainean ere jardun zenuten, ezta?

N. G. I.: Herri bakoitzaren egoera oso ezberdina da. Esaterako, 2017ko udan, Burgun egindako bilera hartan oso gauza gutxi nekien *Agurainen 75 Orduz Euskaraz* ekimenari buruz, eta handik aurrera hasi nintzen tokian tokiko egoerak ezagutzen. Horren ezberdinak direnez, beharrak ere askotarikoak dira. Baina, erronketako bat da egoerak bateratzea eta herri guztietan gutxieneko batzuk bermatzea.

A. A.: Bestalde, komunitateari izaera juridikoa eman nahi diogu. Orain arte, Aguraingo euskara elkartearen izaera juridikoa erabili dugu hitzarmenak sinatzeko eta diru-laguntzak eskatzeko, baina hau aurrera doa eta LEK (Lautadako Euskararen Komunitatea)-a bezala

bataiatu dugunari izaera propioa eman behar diogu, eta moldatze lanetan gabiltza.

Bilkuran bi lan izango dituen egitasmoa onartu zenuten. Zeintzuk dira horiek?

N. G. I.: Batetik, komunitatea antolatzea eta eguneroko harremanetan, talde egituratueta eta informaletan, hizkuntza ohiturak aldatzeko eraginkorrak diren eta ikertuta dauden Eusle, Ahobizi-Belarriprest edo Ulerrizketa metodologiak erabiltzea, Euskaraldiari begira nahiz Euskaralditik kanpo. Bestetik, Lautadako zortzi udaletan eragitea. Elkarlanean, betebeharreko legedia bete dezaten eta hizkuntza eskubideak berma ditzaten. Azken finean, hizkuntz ohituretan eragitea.

Azken horren bueltan, baduzue erronka zehatza...

A. A.: Hala da, bai. Zortzi udalen arteko konbergentzia prozesu baten ondoren Lautadako Euskararen Mahaia eratzea da helburua, eskualdeko 9 erakunde publikoen ordezkari politikoei eta eragile sozialek hizkuntza politika adostu bat diseinatu ahal izateko. Instituzioekin 2017an hasi genuen elkarlana, eta gaur egun ezinbestekoa dugu; instituzioen laguntzari esker, lagun bat dugu liberatuta Lautada oso ondo ezagutzen duena eta eskualde osotik mugitzen dena; bestela guk ezingo genuke aurrera egin. Zortzi udalekin eta Kuadrillarekin dugu hitzarmena sinatuta, eta Vital Fundazioaren laguntza ere badugu. Guzti horri esker, liberatuari ordaintzen diogu, eta baita egiten ditugun ekintza guztiak ere. Baina, hitzarmena ez da bakarrik dirua emateko izan behar, hartu-emanaren egon behar da.

Bestelako proiektuak ere badituzue esku artean.

N. G. I.: Bai. LEK irudia sortzearena ez da bakarrik izen bat jartzea. Gaur egun badakigu Interneten ez bazaude ez zarela existitzen. Orain arte sare sozialetan ibili bagara ere, egunotan webgunea jarriko dugu martxan. Oso proiektu polita da.

A. A.: Horrekin batera, LEK-ari nolabaiteko forma ematen hasteko, bazkidetza edo kidetza kanpaina jarriko dugu martxan. ■

"INSTITUZIOEKIN DUGUN AKORDIOA EZ DA BAKARRIK IZAN BEHAR BERAIEK GURI DIRUA EMATEKO"

"EGUNOTAN WEBGUNEAK ETA BAZKIDETZA KANPAINA JARRIKO DUGU MARTXAN"



Eskualdea kohesionatzea du helburu elkarteak; besteak beste, urtero antolatzen du Lautada Eguna. LANDA GARAPEN ELKARTEA

Landa garapenari bultzada

Eskualdeko garapen sozioekonomikoa eta herritarren bizi baldintzak eta zerbitzuen hornidura hobetzea dira Lautadako Landa Garapen Elkartearen helburu nagusienak.

MIRIAN BITERI

Lautada Landa Garapen Elkartea 2005ean sortu zen. Elkartearen zuzendaritza eskualdeko zortzi udalek, kontzejuek eta lehen, bigarren eta hirugarren sektoreetako ordezkariak osatzen dute, eta kide diren entitate guztiek hartzen dute parte asanbladan.

Helburuei dagokionez, honako hauek ditu nagusi: batetik, Lautadako gizarte dinamismoa eta pertenezia sentimendua sustatzea; bigarrenik, eskualdeko eremu landatarrenak jendez hustea eragozte; hirugarrenik, bertako barruko komunikazioa eta

loturak hobetzea; laugarrenik, baliabide naturalen kudeaketa eta aprobetxamendua zein iraunkortasun energetikoa hobetzea; eta azkenik, jarduera ekonomikoak sustatzea eta finkatzea.

Elkartearen zeregina da gai guzti horien gaineko informazioa eta laguntza ematea entitate publiko zein pertsona edo talde pribatuei. Ekintzen arabera, departamentu batera edo bestera bideratzen dituzte, aholkularitza zerbitzu baten bitartez, sortutako beharrei erantzun bat eman ahal izateko. Horrekin lotuta, badira Landa Garapen Elkarteak kudeatzen

dituen bi laguntza landa eremuetara bideratuak: Leader eta Erein. Laguntza horiek bost lerro dituzte: ekintzailetzarako; enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko; besteren kontura kontratatzeke; Leader herrietako azpiegiturak eta oinarritzko zerbitzuak egiteko eta berritzeko, eta etxebizitzarako laguntzak.

Lautada Eguna

Bereziki, hiru lan arlo ditu. Eskualdea kohesionatzeko saiakeran, Lautada Eguna antolatzen du; sei urtez jarraian egin izan du. Edizio bakoitza udalerrri batean ospatzen da; urtean zehar, zortzi

udalerrietan jorratzen diren jarduerak eta bestelakoak ezagutzeko, partekatzeko eta harremanak egiteko jai eguna da. 2020an, Donemiliagan ospatuko da urriaren 31an.

Lautada egunaren aurreko astean Landa Garapen astea egiten da: berdintasuna, euskara, ingurugiroa, garraioa, kirola, kultura, turismoa, komertzioa eta ekintzaitetza gaiak ardatz hartuta hainbat ekimen antolatzen dira.

Bestalde, garapen iraunkorra sustatzen du, natur baliabideak modu egokian erabiliz, kudeatuz eta aprobetxatuz. Bereziki, ikastaro bidez egiten da hori. Eta azkenik, jarduera ekonomikoa garatzearen arloa dago: lehen sektorean, eraldaketan edo landa eremuan garatzen den edozein alorretan. Azken urteotan indar berezia jarri da lehen sektorean sortzen diren elikagaien transformaziorako tresnak sortzeko, beti ere ekoizleen eskariak oinarri hartuta. Hala, Lautadako transformazio gunea Donemiliagako Udalak Okiturri poligonoan duen pabiloi batean eraikiz doa.

Transformazio gunea

Hiru esparrutan ari dira lanean elkarrekin ekoizleak eta elkartea. Batetik, lekaleak eta beste ale batzuen garbiketa gunea dagoeneko martxan dago. Bestetik, hegaztientzako hiltze modularra egiteko proiektua dago bertan. Eta, azkenik, Lautadako lurretan ekoizten dena bertan apenas kontsumitzen dela eta, egoera horri buelta ematea da asmoa. Labore horien eraldaketan pausuak eman nahi dituzte, bai errota lanetan eta baita irinaren eraldaketan ere. ■■■



**Janaria birziklatu
Elikagaiak erein**



**Ongari ORGANIKO
EKOLOGIKOA**

688 917 576 - Herriak
www.ekalaeko-gestion.com
ekala@ekalaeko-gestion.com



San Martín, 2 (Agurain)



**ARDOAK ETA EDARIAK
VINOS Y BEBIDAS**



ABOGADAS AGURAIN
Rosa Ana Lejarcegui Gutierrez



Telf: 945 30 05 53 | 667 07 52 32
rlejarcegui@abogadasagurain.es
www.abogadasagurain.es
K\ Zapatari n°2-bchca, 01200
Agurain, Araba



GASÓLEOS ARTAJONA S.L.U.

**LOS MEJORES
PRECIOS
DEL MERCADO**

**SERVICIO A DOMICILIO
GASÓLEO A, B Y C
PRODUCTO CLH
GESTIÓN DE DEPÓSITOS**



948 36 45 33
FAX: 948 36 49 78

Avda Diputación Foral, N 7, 31140 - Artajona (Nafarroa)
Email: info@gasoleosartajona.com

AHTaren 'albo-kalteak', nonahi

AHTaren kontra 7.000 alegazio bildu zituzten Lautadan 20 egunetan, eta eskualdea erditik zatituko duen asmoaren aurrean oposizio handia dago; trenak ekarriko dituen ondorioen berri eman zuten kaltetuek.



Iñigo Hernandez eta Aritz Albaina, Lautadak AHTrik Ez plataformako kideak. ESTITXU UGARTE

ESTITXU UGARTE

Lautadako herri txiki ugariaren sarreran eta etxe gehienetan zintzilik dago AHTaren kontrako banderatxoa: Langarikan, Azilun, Burgun, Gazeon... Oposizio handia piztu du eskualdean Abiadura Handiko Trenak. "Kezka handia dago; proiektua ezagutu eta berehala 7.000 sinadura jaso genituen, 20 egunetan. Sustapen Ministerioan aitortu digute inoiz jaso duten alegazio kopururik handiena dela". AHTaren kontrako plataformako kide eta Langarikako bizilagun Aritz Albainarekin eta Munaingo Iñigo Hernandezekin hitzordua zuen iaz ALEAk, proiektua kaltetuen ahotik ezagutzeko.

Nafarroako Sakanan sartu eta gero, Lautada punta batetik

bestera zeharkatuko luke AHTak, Espainiako Sustapen Ministerioak iaz aurkeztu zuen alternatibaren arabera. Ordura arte, Nafarroaren eta Euskal Y-aren arteko lotura Ezkion, Gipuzkoan, egitea aurreikusten zuten, baina azken orduan aldatu dute plana. Bi aukeren artean luzeena da Lautada erdibitzen duena, baina erakundeen arabera ingurumen kalte txikiena eragiten ei duena da, eta egiten merkeena.

Herrien etorkizuna kolokan

Lautadako kaltetuek, aldiz, ekonomikoki eta sozialki bideragarria ez den egitasmoa dela uste dute. Onurarik ez duela ekarriko azaldu zuten, eta gainera, lurraldea birrinduko duela. Are gehiago, Lautadako herri ugariaren etorkizuna kolokan jarriko du. Hainbat

herri itoko lituzke tren lasterrak, lautadarren hitzetan:

"Ibargurenen eta Urabainen etxeetatik 30 bat metrora pasatuko da; beste herri batzuk azpiegitura erraldoiez inguraturik geratuko lirateke: autobia, AHTa eta gaurko trenbidea... Erabat isolatuta geratuko dira, ezingo da bertan bizi!". Ehunka nekazaritza lur eta labore ere jango ditu, eta eraikuntza obrak egiten diren bitartean herrien arteko bideak eta soroetara zein mendiara joateko sarbideak itxiko dira.

Gainera, inguruko baso-irlak eta korridore naturalak hondatuko direla salatu zuten, eta Done Jakue, Posta eta Ignaziotar bideekin batera, aztarnategi arkeologiko garrantzitsuak ere kaltetuko dituela. "Lautada osoan hoberen gorde den tenplu

erromanikoa, Arraraingo San Joan basiliza, hormigoiazen azpian desagertuko dute", esan zuen Albainak.

Desjabetzeak ere kezka iturri dira, erakundeek "trikimailuak" erabili ohi dituztelako, ahalik eta merkeen edo debalde nekazarien eta kontzejuen lurak okupatzeko, eta kaltetuen eskaerak saihesteko informazioa ezkutatzan dute. Horregatik, 2018. urtetik dabiltza mobilizatzen. ■■■

Parke eolikorik ez Iturrietako mendietan

Iturrietako Mendiak Aske plataforma berreskuratu zuten iaz Lautadako eta Mendialdeko hainbat herritako lagunek, inguru horretan parke eoliko bat eraikiko duten beldur. Azken hilabeteotan, EAEn energia eolikoari lotutako egitasmo berriak martxan jartzeko mugimenduak izan dira; Araban, Labraza eta Iturrietako Mendiak.

Azken horretan, iazko azaroaren 27an jarri zuen Iberdrolak eta Energiaren Euskal Erakundeak sortutako Aixe Indar enpresak haize neurgailu bat, eta horrek alarmak piztu ditu. Natura 2000 Sarearen barruan dagoen eremua dela argudiatu dute plataformatik, eta horrelako azpiegitura batek, besteak beste, bertako hegazti nekrofagoei eragingo liekeela salatu dute.

“

**LANKIDETZA
GUNEA
LAUTADAKO
COWORKING-A**

”

INFORMAZIO GEHIAGO
Kale Nagusia 29, agurri-londak
info@artekamedia.eus
(+34) 945561067


Hogar Larrea
Residencia para Mayores

945 31 72 02

**Etxebitarte 2,
Larrea (Araba)**

LA SALA DE ESCAPE EN ENTORNO RURAL DE EUSKADI
EUSKADIKO LANDA EREMUKO LEHENENGO IHES-ARETOA


LAUTADA PUZZLE ROOM

APOCALIPSIS NATURA

AUDIKANA
WWW.SALAESCAPELAUTADA.COM TELF: 699544088

**HERRIKO TABERNA
AGURAIN**


Bogorri minnez, herriak pozatzen Herrikoak amonak!


bidean
euskararen
bidean

La Polla Records, Zabalarten

1980ko hamarkadako talde mitikoak 40 urte bete zituen pasa den urtean, eta sorterrian musika taldearen historiaren errepasoa egin zuten 'Estos son La Polla' izeneko erakusketaren bidez

ERREDAKZIOA AGURAIN

Aguraingo Zabalarte Etxeak erakusketa berezia izan zuten pasa den urteko otsailean: hain justu ere, La Polla Records musikaren taldearen ibilbidearena. Bertan, besteak beste, taldearen garai ezberdinetako argazkiak, sarreak, kartelak, fanzineak edo kazetaritza aipamenak zeuden jasota.

Euskal Herriaren historiako punk talde mitiko eta eraginkorrenetako bat da Aguraingo taldea. Arabako Lautadan jaio zen, 1970eko hamarkadaren amaieran, garai hartako egoeraren errebeldia oihu bat bezala; nazka eta amorrutik sortutako oihu bat, gaurko egu-

nera arte iristen diren askatasun-promesa faltsuekin engainatua izan den gazteria batek bereganatzen zuena. Iaz, 40 urte bete ziren taldea jaio zela, eta, urteurrena aitzakia hartuta, bere ibilbidearen gaineko erakusketa antolatu zuten. Horren sustatzailer Kepa Ruiz de Eginok azaldu zuten ekimen horrekin belaun-

TALDEAREN GARAI EZBERDINETAKO ARGAZKIAK, KARTELAK EDO SARRERAK EGON ZIREN IKUSGAI

di berriei taldearen 40 urteko historia azaldu nahi izan zietela. Lehen kontzertua "desastre hutsa" izan zela gogoratu zuen, Evaristo Paramosen taldeak apenas zekielako musika tresnak jotzen. Baina, historia egitea lortu zuen.

Harrituta dago erakusketakizandako harrerarekin: "Sorpresa bat izan da guretzako, espero ez genituen tokietatik jende asko etorri delako, hala nola, Aragoi, Valladolid, Bartzelona edo Parlatik. Bagenekien taldeak oiartzuna zuela, baina ez genuen uste horren ezagunak zirenik".

Taldearen itzulera

Erakusketa amaitu eta handik gutxira, martxoan, heldu zen La Polla Recordsen itzuleraren iragarpena. Taldeak bere sorreraren 40. urteurrena ospatu nahi zuen banandu zirenetik hamasei urte betetzen zirenean; 2003. urtean taldearen azken kontzertuak eskaini zituen boskotearen eskutik: Evaristo, Sume, Abel, Txiki eta Tripi. Maiatzean, *Ni descanso, ni paz!* disko berria kaleratuko zuen, eta urrian, Barakaldon kontzertu bikoitza eman zuen talde aguraindarrak.



Erakusketan ikusgai egon zen taldearen argazki bat. ALEA



Evaristo, iaz. ALEA

Ander Iriartek jaurti zuen jaietako txupina

Herriko jaietan, Naizen Euskadiko Adingabe Transexualen Familien Elkarteak izan zen omendua; eta Ander Iriarte aguraindarra ri egokitu zitzaion elkartearen ordezkari izan lanak egiteko ardura.

Naizen elkarteari, adingabe transexualak gizartearen ikusarazteko eta normaltzeko egiten duten lanagatik, urriko festetako hasierako txupina botatzeko aukera eman zitzaion aguraindarrari.



EITB



KEPA RUIZ DE EGINO

Curtidos enpresaren tokian, parke bat

Iazko urtarrilean hasi ziren garai batean ardi-larruazala belzten zuen Curtidos Salvatierra lantegia eraisten; hilabete inguru luzatu ziren eraikina bota eta bertako lurra deskontaminatzeko lanak.

Udalaren asmoa, lehenagoko eraikinak betetzen zuen lur eremuan, parke bat eta etxebizitzak egitea da.





Santa Klara komentua, Dulantzín. ALEA

Dulantzin ez dute aldaketarik nahi

Klaratarren baratza birmoldatzearen kontra bozkatu zuen urtarrilean herritarren gehiengoak; gune horretan arkeologia ezagutzeko lorategi publiko bat eta bost etxe eraikitzea zegoen aurreikusita.

MIRIAN BITERI DULANTZI

Argi utzi zuten Dulantzín. Urta-rrilaren 13an egindako herri galdeketa, botoa eman zutenen %68 inguruk klaratarren baratza birmoldatzeko egitasmoaren kontra egin zuten. Udal eta gainerako hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea dutenek izan zuten honetan ere bozkatzeko eskubidea: hain zuzen ere, 2.000 lagun pasatxo; eta %28a hurbildu zen herriko kultura etxean jarrita zeuden mahaietan botoa ematera.

Santa Klara komentuko ortu zaharraren etorkizunaz galdetzen zien kontsultak herritarrei. Zehazkiago, Herriko Hiri Antolakuntza Plan Orokor berriak aurreikusten duen ekimen baten inguruan. 2016an, behin-behinekoz onar-

**2.000 LAGUN INGURU
ZEUDEN DEITUTA
IGANDEAN, ETA %28AK
EMAN ZUEN BOTOA**

tutako plan horrek 3.700 metro koadro inguruko baratza bi zati nagusitan banatzea proposatu zuen: arkeologia ezagutzeko gunea izango lukeen lorategi publiko bat, batetik, eta atxikitako bost etxe eraiki ahal izateko ingurune bat, bestetik.

Herritar guztiak ez ziren proposamenaren alde agertu, eta hori dela eta, erabaki zuen Udalak herri galdeketa deitzea. Hain justu ere, proiektuak aurreikusten dituen aldaketen edo gaur egun dagoen bezala uztearen alde ote diren galdetu zitzaizen bertakoei.

Emaítza, loteslea

Galdeketa utzitako emaitzak ikusita, Dulantziko alkate Joseba Garitagoitiak esan zuen Udalak kontuan izango zuela herritarren iritzia, besteak beste, parte-hartze kopurua %25a gainditzeko baldintza bete egin zelako. Gaineratu zuen udal teknikariek gune horretarako aukera berriak bilatzeari ekingo ziotela aurrerantzean.



DULANTZIKO ESKOLA

Natura elementuekin egindako gune berria

Dulantziko ikastetxeak patio zati bat egokitu zuen pasa den urtean. Porlanezko "betiko" tokiez aspertuta, ikastetxeko klaustroak umeen beharrak aztertu zituen eta erabaki zuen patioko alde batean natura elementuz osatutako gune bat prestatzea; hain zuzen ere, egurra erabili dute elementu ezberdinak egiteko.



DULANTZIKO UDALA

Antzerki Amateur jaialdiaren amaiera

Dulantziko Antzerki Amateur Jaialdiaren XIII. edizioa egin zuten azaroan, zaletuez osatutako be-deratzi talderen lanak eskainiz eta umorea eta tonu serioagoa tartekatuz.

Goiko irudia, azaroaren 23an egindako jaialdiaren amaiera ekitaldian aterata dago; Izaskun Isasik eta Josune Velez de Mendizabalek gidatu zuten emanaldia.





Dulantzin ere,
nahi baduzu euskaraz



Alegria-Dulantziko Udala - Ayuntamiento de Alegria-Dulantzi

Telf: 945 420 027 | Fax: 945 420 394 | alegria.ayala@ayto.araba.eus | www.alegria-dulantzi.eus



Marutegiko gazteluaren irudia. ALEA

Marutegiko gaztelura bisita

Araiako lurretan dagoen Marutegiko gaztelua bisitatu zuten lehen aldiz ekainean; antolatzaileek jakinarazi dute ikertzen jarraituko dutela eta ez dute baztertzen Marutegiko Eguna berriz ere antolatzea.

ERREDAKZIOA ARAIA

Gaztelu berezi bat dago Aizkorri-Aratz parke naturalean, Araiako lurretan, Lautada osoa kontrolatzen duena: Harizti baten erdian altxatzen den haitz baten gainean dagoen Marutegiko gaztelua. Haren balioa nabarmentzeko,

Marutegiko Gazteluaren Eguna egin zuten ekainean.

Araiako Prado gunetik, Jotafa taldearekin txango musikatua egin zuten gazteluraino. Goian, txalaparta zuten zain, eta baita Oihane Perea bertsolaria ere. Bertsoen ostean, Iñaki Sagredo

historialariak gazteluaren gaineko azalpenak eman zituen; eta Otsolur taldekoek, bitartean, garai hartako jantzi eta armen berri eman zuten.

Herri bazkaria igerilekuetan

Bisitariak testuinguruan kokatu ondoren, musikariekin batera, Araiara itzuli ziren, udal igerilekuetara; eta Ertaroko beste erakustaldi bat eskainiko zuten Otsolurrekoek bertan. Herri bazkariarekin amaitu zen Marutegiko Eguna.

Amalur natura taldeko kide Asier Valverdek ALEA FM irratisaioan azaldu zuen Marutegiko gazteluak "gure herriaren historia" gordetzen duela eta herritarrei orain arte ikertutakoaren berri eman nahi zietela. Aztertutako ikerketen arabera, XI. mendean sortu omen zuten; dena dela, gaineratu zuen ikerketan sakondu egin behar dela. Denboraren poderioz, galtzen joan da eta, gaur egun, haitzaren gailurrean dorre bat geratzen da, eta haren inguruan harresi txiki bat; eta beheago, bigarren harresi bat. Sagredok azaldu zuen behean oraindik ere lehengo aztarnak daudela, eta, harresiarri itsatsitako etxola batzuetan bizi zirela; eta goiko harresia, bigarren defentsa moduan erabiltzen zela.

Artxibo lanak

Orain arte kanpoko aztarnak ikusi eta datatu dituzte, eta hurrengo fasean, artxibo lanak egiteko asmoa dute. Horren harira, honakoa esan zuen Valverdek: "Lehen bultzada eman diogu, hau hasiera baino ez da. Haritik tiratzen dugunean ikusiko dugu zer zegoen han. Asmoa da denona den historia denontzat izatea". Ez du baztertzen Marutegiko Eguna berriz ere errepikatzea.



ALEA

Industriaguneko sarrera, konpontzeaz

Pasa den urteko udal aurrekontuetan, Araiako industriaguneko sarrera hobetzeko 430.710 euro bideratzea adostu zuen Asparreneko Udalak, Asparrena Bidean eta Candidatura Independiente de Asparrena udal taldeen babesarekin.



ALEA

Iruñea eta Albeiz elkartu zituen Olentzerok

Ohiturari jarraituta, Iruñeko 200 bat lagun heldu ziren abenduaren 21ean Albeiz herrira, Olentzero eta Mari Domingiri ongi-etorria egin eta Eguberrietako gutuna ematera. Trenean egin zuten bidaia haur eta gurasoek, baserritarrez jantzita, eta Albeizeko lagunak egin zieten harrera, arratsalde-pasa berezia egiteko.

**IRAGANA GOGORATU,
GEROAREKIN AMESTEKO
ETA GAURKOAZ GOZATZEKO!**



Asparreneko Udalak



lazio otsailaren 2an Barrundiako familiekin egindako bilera; Ezkio Itsasoko eskola txikikoekin. SUSANA LOPEZ DE ULLIBARRI

Eskola txikia zabalduko dute

Haur eta Lehen Hezkuntzako bi gela izango ditu eta jantokia zein garraioa eskainiko du. Barrundiako Udalak 74.000 euro baino gehiagoko inbertsioa egingo du Ekinbide eraikina egokitzeko.

ERREDAKZIOA

Urteetako lanaren ostean, Barrundiak eskola txikiko ateak zabalduko ditu 2020/2021 ikasturtean, eta Lautadako udalerrri honetako umeek bertan ikasteko aukera izango dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak berriki eman diote erabakiaren berri Barrundiako Udalari. Hortaz, egunotan zabalik dagoen matrikulazio kanpainan Barrundiako eskola txikia aukeratu ahalko diren aukeren artean azalduko da.

Ekinbide izeneko eraikinean egongo da, eta bera egokitzeko 74.600 euro inbertituko ditu Barrundiako Udalak. Abenduan onartutako aurrekontuan diru partida gorde zuen horretarako. Gainera, Eusko Jaurlaritzari diru laguntza eskatu diote inbertsioari aurre egiteko.

"Herri biziak nahi baditugu, gure geroa zaindu behar dugu", azaldu du Igor Medina Isasa alkateak. "Umeak hemen hazteko aukera izan behar dugu, eta horregatik funtsezko proiektua zen

herri eskola bat zabaltzea Barrundian".

Eskola txikiaren proiektua

Barrundiak 880 bizilagun inguru ditu; horietatik 2 eta 12 urte bitarteko 85 ume daude. Gaur egun, udalerrria osatzen duten 13 herrietako hiru urtetik gorako haurrak beste udalerrietara joan behar dira egunero ikastera. Hiru urtetik beherakoek, ordea, Haur Eskola dute Ozetan.

Bertako gurasoek Etxeako elkar-tea sortu eta Ozetan eskola txiki bat zabaltzeko lanean izan dira azken urteetan. Lan horrek bilatutako emaitza lortu du.

Beste eskoletan bezala, eskolatik bi kilometrotik gorako distantziara bizi direnek eskola garraioa erabiltzeko aukera izango dute. Bertako jantokia guraso elkartearen esku geldituko da. "Zabalik dugun ekonomatoarekin batera elkarlanean aritu beharko dira, bertako produktuak sartzeko eta ekonomia zirkularra bultzatzeko", azaldu du alkateak.

Kontsumo arduratsua sustatzen duen ekonomatoak hamar urte bete zituen iaz

ERREDAKZIOA OZETA

Barrundiako ekonomatoa zabaldu zenetik hamar urte pasa dira dagoeneko. 2009an, Ozetan eta inguruan bizi zen talde batek, bereziki emakumez osatuta zegoena, bertako produktuak sustatzeko eta ekoizleak laguntzeko beharra ikusi zuen eta Ozetan kontzejtuak utzitako lokal batean ekonomatoa zabaldu zuen. Bertan

lau urte eman ostean, herri bereko osasun etxe zaharrera aldatu zen Barrundiako Kontsumitzaile Taldea; gaur egun, 235 familiek osatzen dute irabazi asmorik gabeko elkarteak.

Barrundiako ekonomatoak ez ditu bakarrik garaian garaiko produktuak saltzen; hitzaldiak, tailerrak, ikastaroak eta bestelako ekintzak ere antolatzen ditu.



Ekonomatoa. SUSANA L. DE ULLIBARRI

Bertako sei gaztek begirale moduan jardun zuten lehendabizikoz iazko udalekuetan



Barrundiako begiraleak. GARAION SORGINGUNEA

ERREDAKZIOA OZETA

Kostata baina lortu dute. Garaion Soringuneak inguruko neska-mutikoentzako antolatutako iazko udalekuetan Barrundiako begiraleek hartu zuten parte. Garaion martxan jarri zenetik, ahalegin berezia egiten ibili dira hasierako urte horietako nahiz ondorengoetako udalekuetan ibilitako umeak begiraleak izateko formatzen, horretarako hainbat ikastaro antolatuz. Ozeta eta Marietako sei begiralek parte hartu zuten pasa den urtean.





Pasa den urtean egindako saio parte-hartzaile bat. BURGELUKO UDALA

Klima aldaketari aurre egin nahi dio Burgeluk

Hiri planteamendurako irizpide jasangarriak aplikatzea helburu duen Egoki proiektuan parte hartu zuen, beste hainbat udalerriekin batera.

ERREDAKZIOA BURGELU

Burgelu, Asparrena eta Nafarroako beste lau udalerriekin batera (Arguedas, Azkoien, Tafalla eta Atarrabia) Egoki proiektuaren bigarren edizioako protagonistak

izan ziren pasa den urtean. Proiektu horretan lurralde bakoitza aztertzen da, klima-aldaketara egokitzeko, eta horrela udal-proiektuei hirigintza jasangarriko irizpideak aplikatu ahal izateko.

Udalsarea 21 eta Nafarroako NELS sarearen arteko hitzarmenari esker, Burgelu eta parte hartu duten gainerako udalerriak lehenak izan ziren haien kalteberatasuna eta klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko gaitasuna aztertzen. Horretarako, hainbat saio parte-hartzaile antolatu zituzten otsailaren 20an eta martxoaren 27an, horren gaineko ezagutza aztertu eta herritarrekin partekatzeko.

Sentsibilizazio antzezlanak

Hausnarketa eta lan jarduerak hasi baino lehen, dena dela, herritarrak klima-aldaketaren ondorioekin, modu dibertigarrian, sentsibilizatu zituen Trokolo antzerki taldeak, eta lurraren egoera larriaz kezkatu zituen.

Antzezlanaren ondotik, udalerriari izandako bizipenari esker, lankidetzan jardun zuten bertaratu ziren herritarrek, eta askotariko proposamenak partekatu ostean, hirigintza-plangintzara egokitzeko irizpideak ezarri zituzten, hala nola, uraren kudeaketa, energia edo elikagaien ekoizpen jasangarria bezalako gaietan.





BURGELUKO UDALA

Joko hezigarrien jaialdia, hamargarrenez

Hall taldeko begiraleen laguntzarekin, 2 eta 99 urte bitarteko lagunen-tzako joko dibertigarrien jaialdia egin zen. Hamargarren edizioak berrikuntza asko izan zituen, hala nola, irakasle eta gurasoentzako hitzaldiak, *Star Wars*eko pertsonaien bisita, betiko jokoak edo ihes kutzak; azken horiek arrakasta handia izan zuten.

Burgeluko emakume enpresarien topaketa

Urtarrilaren 28an Burgeluko emakume enpresarien arteko topaketa ospatu zuten.

Hain zuzen ere, Argomaiz, Arbulu eta Burguko zortzi emakumek deialdiarekin bat egin zuten udalerriko udaletxean.

Gai ugari landu zituzten bilkuran eta bertatik ondorio garrantzitsuak mahai-gaineratu zituzten, besteak beste: bertako emakume autonomoen sarea sortzeko beharra identifikatu zuten, garrantzitsua ikusi zuten gainera inguruko emakume enpresaburuen zerrenda publiko bat eratzea, eta baita egindako lana zabaltzen laguntzeko aldizkako komunikaziorako tresna bat sortzea ere. Halaber, errespetatuak izateko beharra adierazi zuten.



BURGELUKO UDALA

'Frigotekak' ekimen jasangarria, martxan

Herritarren artean irakurketa bultzatzeko, *Frigotekak* ekimena jarri zuten iaz martxan. Hozkailu zaharrak berrerabiltzean datza; auzokideek apaindu eta margotu ostean, liburuz bete zituzten, trukerako. Denera, sei hozkailu egokitu zituzten, bat herri bakoitzeko.



BURGELUKO UDALA



Pasa den urtean, Erentxunen egindako herri kirolak. IRURAIZ GAUNAKO UDALA

Festa Erentxunen

Udalerriko festa hartu zuen ekainaren 22an Erentxungo kontzejuak; egun osoko jaiak askotariko ekimenak izan zituen, hala nola, herri kirolak, bertso saioa, herrien arteko tortilla txapelketa edo jokoak.

ERREDAKZIOA ERENTXUN

Urtero Iruraiz-Gaunako udalerrria osatzen duten hamaika herrieta-ko batean ospatzen dira jaiak, eta iaz Erentxungo kontzejuaren txanda izan zen, ekainaren 22an. Familientzako lau bat kilometroko mendi martxarekin hasi zen

eguna; eguerdian, txupina jaurti zuten eta Ezkerekotxa kontzejuari datorren urterako lekukoa pasa zioten. Meza ostean, berriz, udalerriko gizon eta emakume helduak omendu zituzten.

Herri kirolak ere izan ziren, eta baita puzgarriak, tailerrak eta bes-

telako jokoak ere. Horiek bukatu-takoan, herri bazkaria egin zuten, eta jarraian, haurrentzako jokoak hasi ziren. Arratsaldea ekintzaz josita pasa zuten: tartean, mus eta briska txapelketa, musika ikuski-zuna, boloak, bertso pilota saioa, putxe herrikoia, herrien arteko tortilla txapelketa eta amaitzeko, disko jartzaile baten emanaldia.

'Trenico'-arekin lotutakoak

Bestalde, bi egun lehenago, ekai-nak 20, 50 urte Trenicorik gabe izeneko emanaldia eta horren gaineko erakusketa ikusteko au-dera izan zuten, Erentxungo gi-zarte etxean.


ALEGRIA-DULANTZI
C/ Gasteizbidea 4 / Tlf. 945 42 00 05

Bizikleta martxa, Arrietatik Azilura

Urteroko ohiturari jarraituz, familia arteko bizikleta martxa antolatu zuten Iruraiz-Gaunako bizilagunek. Irailaren 15an zegoen eginda hitzordua, 11:00etan. Letiziak eta Ionek gidari lanak egin zituzten, Arrieta herritik irten eta Aziluraino egindako ibilbidean.

Txangoari amaiera bikaina eman zioten, Lanturri gizarte etxean egindako luntxarekin.



IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Udalerriko nagusien topaketa egin zuten

Udalerriko nagusien arteko topaketa antolatu zuten azaroaren 15ean beste behin ere, eta urtero bezala, lagun ugari bat egin zuten topaketan. Hain justu, 60 urtetik gorako 40 lagun inguru elkartu ziren, Azilun. Meza entzun ostean, mahaiaren bueltan bildu ziren; bazkalostean, Asier Kidamen magia ikuskizuna izan zuten, eta baita bingoa ere.



IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

DISE INU
ETA MOTA
GUZ TIET AKO
MERCHANDI
SING-EN
INPRE SIOA

impresion
arte
serigrafia
publicidad

www.tartakamedia.eus www.IMPRESION-ARTE.com



IRURAIZ-GAUNAKO UDALA
— — — — —
AYUNTAMIENTO DE IRURAIZ-GAUNA

C/ Azilu nº 4 - 01193 AZILU (ARABA-ÁLAVA)

Secretaría: airuraiz@ayto.araba.eus
General: airuraiz.general@ayto.araba.eus
Difusión: dejatupropuesta@iruraiz-gauna.com

oficina 945300991 - móvil 66293822 



Udaletxe ondoko eranskin batean jarri dute galdara berria. DONEMILIAGAKO UDALA

Biomasa bidez, eraikinak bero

Udaletxeko bulegoak eta goiko pisua zein kiroldegia berotzeko galdara berria jarri dute Donemiliagan; bilerak eta bestelako ekintzetarako egingo den eraikin berria ere berotuko da horrekin.

ERREDAKZIOA

Beste zenbait lekutan bezala, Donemiliagan ere badabiltza energia berriztagarrien aldeko apustua egiten. Pasa den urtean, udal eraikinak berotzeko galdara zaharrak aldatu zituzten, eta egurra erabiltzen duen batekin ordezkatu zuten; udaletxeko eranskin batean jarri dute instalazio berria.

Hasierako asmoa zen bertako egurra erabiltzea horretarako, baina Udalean jabetu ziren ezin zituztela horrelako laborantza lanak egin, eta hori dela-eta, inguruko egurgile bati erostea erabaki zuten. Gaur egun, udaletxeko bulegoak eta goiko pisua zein herriko kiroldegia berotzen dira galdara berriarekin.

Aurten, gainera, udal eraikin berri bat egingo dute eta hori ere berotuko da galdararekin. Bilera eta bestelako askotariko ekintzak hartzeko bi gela izatearekin batera, udal ibilgailua eta galdararentzako egurra gordetzeko txoko bat ere edukiko du eraikin berriak. Lehen deialdi batean proiektua egiteko hutsik geratu baldin bazen, dagoeneko esleitu egin dute.



**Donemiliagako
Udala**

www.donemiliaga.eus

Emakumeen beharren azterketa abiarazi zuten irailan

ERREDAKZIOA DONEMILIAGA

Donemiliagako Emakume Feminista taldeak eta Udalak elkarlanean garatu zuten emakumeen beharrak aztertzeko proiektua. Berdintasunaren ikuspegitik landutako egitasmoak, bertako emakumeen beharrak, desirak eta ametsak identifikatzea zuen helburu. Horrenbestez, emakumeek parte-hartzeko dituzten zailtasunak antzemateko mapa egiten hasi ziren iaz. Horretarako, EHU-ko Politika eta Administrazio Zientzietan doktore Mentxu Ramilok lagundu zien zeregin horretan.

Lehenengo prestatze bilera irailaren 18an egin zuten, udaletxean. Donemiliagan bizi ziren emakume guztiak gonbidatu zituzten batzarrrera. Horren ostean, asmoa zen Donemiliagako udalerria osatzen duten 15 herrietan bilkurak antolatzen joatea.

Bi helburu

Mapa osatzerako orduan, bi helburu ditu Mentxu Ramilo kolaboratzailearen lanak. Alde batetik, Donemiliagako talde feministako emakumeek beraien eremu ikerketan laguntzea, udalerriko emakumeen beharrak, zailtasunak, parte-hartzeko oztopoak ezagutzeko eta existitzen diren espazioak zabaltzeko. Eta, bestetik, berdintasunerako emakumeen behar, proposamenak eta bestelakoak planteatzea.

Donemiliagako Udalak udalerriko plan orokorra aldatzeko asmoa dauka, eta helburua da egitasmo horri esker ikusarazten diren beharrak araudi berri horretan txertatzea.



DONEMILIAGAKO UDALA

Konposta egiten dituzten familiei, hobariak

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aplikazioan aldaketak daude. Konposta egiten duten familiek hobariak izatea adostu zuen Udalak, eta horretarako taula bat prestatu zuen. Horren bidez, 29.000 eurotik beherako diru sarrerak dituen lau lagunez osatutako familia batek, esaterako, %75eko hobaria jasoko du; eta hirukoak, %50ekoa.



Zumarraundiko bidea itxi zuten

Zalduondoko Udalak otsailean jakinarazi zuen bidearen "egoera tamalgarriagatik" hartu zuela ixteko erabakia, istripuak gertatzeko "arrisku bizia" ikusten zuelako. Itxita jarraitzen du gaur egun.

ERREDAKZIOA ZALDUONDO

Pasa den urtean, Zumarraundiko bidea itxi zuen Zalduondoko Udalak. Gustavo Fernandez Villate alkateak bere garaian azaldu zenez, "istripua gertatzeko arrisku bizia" zegoen eta haien gogoaren kontra hartu behar izan zuten erabakia. Gaineratu zuen abeltzainek, egurketariek, ehiztariek eta erlezainek bakarrik erabili ahalko zutela bidea.

Zumarraundikoa da Aratz-Aizkorri parke naturalera Arabatik

sartzeko bide nagusia; Urbia eta Oltza zelaietara ibilgailu motor-dunarekin sartzeko modu bakarra eta Done Jakue Bidea, Ignaziotar Bidea edota Posta Erret Bidea ere badira. Baina, 185 biztanleko Zalduondo bezalako udalerri baten

2020 URTEKO UDAL AURREKONTUETAN 11.000 EUROKO PARTIDA ONARTU DA

erabilera gainditzeko duen bidea da. Izan ere, Arabako Diputazioak 2017. urteari buruz emandako datuen arabera, 11.744 ibilgailu eta 36.406 pertsona ibili ziren horretatik.

Zalduondoko Udalak pasa den otsailean iragarri zuen behin-behineko itxiera izango zela, arazoa konpontzeko eta neurriak hartzeko administrazioen arteko lan batzordea osatu arte: "2018ko abenduan, Arabako Batzar Nagusiek erabaki zuten bidearen konponketa aztertzeko administrazioen arteko lan batzorde bat osatu behar zela, Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Patronatuaren baitan".

Konponketarako dirua

Hainbat hilabeteko isilunearen ostean, abenduan albiste izan zen ostera ere Zumarraundiko bidea. Fernandez Villateren esanetan, bideari "irtenbide duin eta iraunkorra emateko benetako aukerak" zeuden. Hori dela eta, 2020ko udal aurrekontuetan ekarpena egitea adostu zuen Zalduondoko Udalak. "11.000 euroko partida aurreikusten dugu, handitu daitekeena, eta beharrezkoa bada, ez dugu kreditu bat eskatzeko aukera baztertzeko", azaldu zuen.

Gaineratu zuen Gipuzkoako Aldundiak bidea konpontzeko 300.000 euro emateko asmoa zuela iragarrita zuela, eta Arabako Diputazioko Ingurumen Sailak, bere aldetik, 150.000 euroko partida aurreikusi zuela xede berarekin. Asparreneko Udalak ere, bidearen zatiak partekatzen dituenak, partida bat du gordeta, eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoek beren aurrekontuetan erabakitzen dutenaren zain zedela. Horregatik, 2020a Zumarraundiko konponketaren urtea izatea espero du Zalduondok.



Zumarraundiko bidea itxi zuen iazko otsailean Zalduondoko Udalak. ZALDUONDOKO UDALA



Auzolanak indarrez berreskuratu dituzte

Auzolanaren bidez, asko dira egindako lanak; tartean, Torrelarre parkeko hesia berritu, belarraren aurkako sareak jarri, udal-hilerria konpondu eta aparkalekua eraiki dute. Udazkeneko eta udaberriko ohiko auzolanak gehitu behar zaizkie horiei.

Aterpe berria abian

Zalduondo udalerrria txikia eta baliabide gutxikoa bada ere, lotura handia du Donejakue bidearekin, eta, tradizio historiko horri jarraituz, bide hori zein Ignaziotar Bideko erromesentzako aterpetxea inauguratu zuten iaz, XVIII. mendeko San Adriango basiliza goitik behera birgaitu ondoren.

Bidea egiten ari diren erromesei bereziki zuzenduta dagoen aterpe berria lehen bisitak jasotzen hasi da dagoeneko; bertan, zortzi ohe, dutxak, sukaldea eta egongela dituzte eskura bidean atsedene gune egokia aurkitu nahi izango duten erromesek.



Hiztun aktiboak formatzen

Eskaintza zabala dute Lautadako AEK euskaltegian: euskalduntzeko maila guztietako euskara eskolez gain, erabilera egitasmoak eta Berbalagun egitasmoa ere eskaintzen dituzte.



Aguraingo auzokide berriein egindako euskara eskolak. AEK

ERREDAKZIOA

Lautadako AEK euskaltegia Agurainen dago, Zapatari kalean. Askotariko egitasmoak dituzte bertan martxan, herritarrak euskalduntzen laguntzeko bidean; tartean, euskara eskolak dituzte, maila guztietakoak, gainera. A1 mailakoak astelehenetik ostegunera dira, 09:30etik 11:30era; eta A2 hasierakoak, ondorengo bi orduetan, egun berdinetan. Kasu honetan arratsalde ere joateko aukera dago, 18:30etik 20:30era. A2 bukaerakoak, astegun guztietan dira, 11:30etik 13:00etara; eta B2 hasierakoak astelehenetik ostegunera, 09:30etik 11:30era edo 18:30etik 20:30era.

Maila altuagoak

B2/C1 lortu nahi dutenek, berriz, 09:45etik 11:45era dituzte eskolak, aipatutako lau egunetan. Horrez gain, C1

mailan, astean bi bider ere badaude: astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30etik 18:30era; edo asteartetan eta ostegunetan, ordu berean.

Aurrez aurreko eskoletara joan ezin direnek 100 orduko autoikaskuntza ikastaroak dituzte. Tutoretza eta mintza-saioa astean behin da. ■■■

Berbalagun taldeak Araian eta Agurainen

Lautadan ere badira Berbalagunak, Araian eta Agurainen. Astero ordubetez biltzen dira: Agurainen, ostiralean bost talde elkartzen dira, bi goizean eta besteak, arratsaldean. Araian, berriz, arratsaldean biltzen dira guztiak: bana asteazkenean, ostegunetan eta ostiralean. Egitasmo honetaz edo bestelakoen gaineko informazioa nahi dutenek Lautadako AEK euskaltegia jo dezakete edo 945-30 04 08 telefono zenbakira deitu.

LAUTADAKO AEK



ZAPATARI KALEA 31

01200 - AGURAIN

945 30 04 08

lautada@aek.eus

Izan zaitez ALEAkide

Astero-astero Araban gertatzen denaren berri ematen du ALEA aldizkariak, eta alea.eus webguneak sarean. Komunikabide arabarra, hurbilekoa eta euskalduna. Zuk ere ALEAkide izan nahi al duzu?

ERREDAKZIOA

Egunez egun, gero eta lagun gehiago gara ALEA komunitatea osatzen dugunak. Gure familia gero eta oparoagoa da, eta bide horretatik, Araban, euskararen presentzia gero eta ohikoa izan dadila lortzen joango gara.

Arazoi horregatik, lehen urte hauetan zuen babesa etengabe eskaini diguzuen guztioi eskerrak ematea dagokigu; zuen ekarpenik gabe, ezinezkoa genuke ALEA aurrera ateratzea.

Zailtasunak zailtasun, astero zuen etxeetan egoten saiatu gara, eta konturatu gabe 220 zenbaki baino gehiago argitaratu dugu dagoeneko.

Hazten jarraitzeko, ordea, proiektuari bultzada ematen lagunduko diguzuen jendea behar dugu. Eta zuek ere abentura honetan bidelagun izan zaitezteela eskatu nahi

dizuegu. Hamaika modu duzu proiektuarekin bat egiteko: aldizkarian harpidetu eta jaso ezazu astero aldizkaria zure etxean, egunero gure lurraldean gertatzen denaren berri izateko *alea.eus* webgunea bisitatu dezakezu, sare sozialetan Alearen jarraitzaile izan eta gure edukiak partekatu ditzakezu, zure ezagunen artean proiektuaren berri eman eta ALEA irakurri dezatela gomendatu dezakezu...

Baina ez pentsa eskean bakarrik gatozenik. ALEAk asko eskainiko dizu jarritako aletxo horren truke: lurraldeko informazioa gertutik ezagutzeko aukera izango duzu, Araban euskalgintzan bizi dugun loraldiaren berri izateko aukera izango duzu, gure komunitateko kide izanda nahi duzun informazioa partekatzeko

erakusleho paregabea eskainiko dizugu, lehiaketetan parte hartzeko aukera izango duzu, sari bikainak eskuratu ahalko dituzu, eta, jakina, guzti hori gurea den hizkuntzan, euskara hutsean.

Zuk ere Aleakide izan nahi al duzu? Jar ezazu zure alea, jaso ezazu zure ALEA. ■■■

Babestu ALEA

Arabako kazetaritza euskaldunari zure babesa eman eta etxean astero ALEA aldizkaria jaso nahi al duzu? Informazio guztia gure webgunean aurkituko duzu:

www.alea.eus/harpidetzak

Lautada euskalduna amets baduzu, bizi euskaraz!!



ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA



CUADRILLA DE LA LLANADA ALAVESA

AGENDA 2020ko Otsaila


AGURAIN 7 SUKALDARITZA TAILERRA ERREZETA DIBERTIGARRIAK FAMILIAN 17:15ean Aguraingo AEKn EMAN IZENA: 607 628 342 Antolatzailea: Lautadako Gurasolagun	AGURAIN 9 ZINEMA LUR ETA AMETS Lur eta Ametsen gurasoek asteburu honetan ezkontza dute eta bikjak amona Andereren etxean utzi dituzte asteburu pasa. Baina Andereren eta bere katu Baltaxarren botereei esker, ez da asteburu arrunta izango. 17:30etan Harresi aretoan Antolatzailea: Aguraingo UDala
LAUTADA 9 MENDILAGUNA HELDUENTZAKO IRTEERA 09:00etan Fueros aurrean (Agurain) EMAN IZENA: 607 628 342 Antolatzailea: Lautadako Gurasolagun	ARAIA 16 MENDI IRTEERA UMANDIARA FAMILIAN 10:00etan bus geltokian Antolatzailea: Atxipi mendi taldea


607 628 342
www.berbalagunlautada.blogspot.com
lautada.berba@aek.eus









LANDA-INGURUMEN BULEGO TEKNIKOA



KROMLETX
info@kromletx.com
 945 046 946 - 665 60 15 70

www.vallesalado.eus




YOGA TRIKUA
 San Martín kolea, 2
 Agurain
 Tel: 945 300 799
yogadevieskola@gmail.com

maika
 fisioterapia



MAIKA BELTRÁN DE HEREDIA
 C/ingoda nº 93B
 Canton Lope de Larrea, 2 - 1º
 Telf: 652 756 236
 01200 Salazarrena-Agurain
maikabeltran@hotmail.com

ENPATIA

LABORAL Kutxaren arabera

Esaten dute enpatia bestearen lekuan jartzea dela.
LABORAL Kutxan uste dugu **zure beharrei irtenbideak ematea** ere enpatia dela.

HIPOTEKA EROSOA

- Zer egunetan ordaindu erabakitzen duzu
- Kuota aldatzen duzu
- Kuota Lasaigarria duzu



Kuota Lasaigarria: hasierako kapital-gabealdiarekin. Lehen 12 hilabeteetan interesak bakarrik ordaintzeko aukera; hau da, urtebetean ez da kapitalik ordainduko. Eta tarteko kapital-gabealdiak beste bi gabealdi ere eska ditzakezu, horietako bakoitza 6 hilabetekoa, betiere batetik bestera gutxienez urtebeteko tartea baldin badago. Kuota aldatzen duzu: kuota txikitzeko aukera, aldez aurretik ordaindu bada eta hasierako epea gainditzeko aukerarik gabe. Zer egunetan ordaindu erabakitzen duzu: kuota hileko zein egunetan ordainduko dituzun aukera dezakezu.



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat

Saldarik
daukazue?

KAIXO

Zer moduz?

Goazen!

Barkatu,
zer ordu da?

ngo
da
dez?

Kafesnea,
mesedez...

Maialen naiz

ESAN?

Egun

Etorriko
haiz?

lehen hitza...
euskara

Mesedez,
laguntzarik
bai?